

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 7a / 499. zenbakia

**ESTEBAN LAZKANO**  
**ETA IMANOL PILDAIN**  
**LANZAROTEKO IRON MAN**  
**PROBA HASI ETA BUKATU**



Esteban Lazkano beste  
lehiakide batekin  
helmugan sartzen.

**EUSKARA: BIZIBERRITZE PLANA AURKEZTU DUTE/5 • ORFEOI GAZTEA: ARO BERRIA, IZEN BERRIA/13**



- Gosariak
- Bokatak
- Egunkariak

- Bertako opilak
- Kafetegia
- Terraza

**OGIZUN ZABALDU BERRIA IBARGARAIN**

Egunero goizeko 07:00etatik zabalik

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



**AGIRRE** Bidekurutzeta 18  
BERGARA

46 tailatik aurrera, denok batera! Chao, argalok!

## ATREBENTZIAEZPADA/ Nor bere herriko historixian gaiñian nahikua dakigula pentsatzen jatzu?



**ARANTZAZU SALABARRIA**  
35 urte

Ez dot uste; nik, behintzat, ez, eta esango neuke nahi-ko orokorra dala hori. Pentsatzen dot gauza gehixago dakigula kanpoko tokixen gaiñian nor bere herrixana baiño.



**FRANCISCO TORRES**  
54 urte

Orokorrian nahiko gutxi dakigula uste dot, ez da pertsona bat edo biren kontua. Utzikerixa kontua dala uste dot, eta beste alde batetik, gehixago interesatzen gara-lako kanpoko gauzena.




**OLATZ ORTEGA**  
25 urte

Ez dot uste asko dakigu-nik, eta kaso haundirik be ez dot uste egitten dogunik. Jeneralian interes txikixa daukagula pentsatzen jat; batzuk eukiko dabe, baiña gehixenek uste dot ezetz.



**PATXI ARRIOLA**  
71 urte

Pixka bat badakigu, baiña nahikua ez dot uste; gaiñe-ra, sekula be ez da nahikua izaten, zenbat eta gehixago jakin hobeto. Horretxegatik, ondo dago holako gauzak erakustia.



**SAIOA ETXABARRI**  
18 urte

Ez dakit askorik, eta orokorrian be hola dala esango neuke. Institutuan dihardut, eta han be gehixago ikasten dogu Espaiñiako historixa EHKua baiño, eta Bergarakua, bat be ez.



**XABIER UGALDE**  
38 urte

Ez dot uste asko dakigu-nik. Ez gara horrekin kezkatzen, gehixenbat egunerokua bizi dogulako. Pasatzen da batzuetan gehixago jakitzia kanpoko gauzez nor bere herrikuez baiño.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK KULTURA ETXERAKO SARRERA** Euria egiten duenean, batez ere, Errotalde parkerako sarrera guztiz lokazten da. Udalak badu aspalditik parkea konpontzeko asmoa, baina badirudi kontua atzeratzen ari dela. Hori horrela bada, behintzat sarrera pixka bat txukuntzea ez litzateke batere gaizki egongo, jende ugari ibiltzen baita kultura etxera sartu eta irten. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

**Tejera-ko zubi berria**

Datorren astean irekiko dute Tejerako zubi berria, eta zahar-raren funtzio bera izango du.

KIROLAK /10

**Lanzaroteko Iron Man-ean**

Esteban Lazkano bergararrak Lanzaroteko Iron Man proba ospetsua amaitzea lortu du.

KULTURA /12

**Udaberriko kontzertua**

Musika Eskolako ikasleek Udaberriko kontzertua egingo dute domekan, 12:00etan, Udal Pilotalekuan.

## IRAKURLEAK MINTZO

**LONDONETIK AUPA, BERRIGARA!**

**E**skerrak eman nahi dizkizuet kanpoan gauden bergatarroi, asteroko jardunetan tartetxoa eskaintzearen.

Joan den ostiralean, aste guztia lanean egin ondoren, uniformari dagozkion bakeroak kendu, eta ohe gaineko apaltxoan utzi nituen, haiek ere "break" (atse-denaldi) bat behar baitzuten, nik bezala. Toaila hartu eta dutxa epel bat merezi nuela pentsatu nuen, nire ileak ostiralero bezala usaintzen zuen, kafe usaina beharbad... eta azazkalek ere kolore arraroa zeukaten; gorroto diot haiek pintatzeari, baina kolore marroi berdexka ilun bat hartzen dute, eguneroko zortzi orduak aguakateak zatitzen, eta hau ogi integral zapalean kontu handiz zabaltzen arituz gero.

"Heaven" (paradisua) izeneko diskoteka batean elkartzekoa nintzen 18:00etan; beraz, amatxok oparitutako koloretako gona jantzi eta mobil hotsa somatu nuen sukaldeko mahaitik, bere dezibelio guztiez baliatuz niri deihadarka, eta era berean, Rocio, bizilagun Andaluziarra: "Uzoaaaaa-aaaaa, er movi!".

"...Aupa Úsoa, zer moduz? Berrigaratik deitzen dotzugu...". Ahi va la ostia....pentsatu nuen, benetan izugarri poztu ninduen dei horrek. "Quién era? Tu madre, hija?" galdetu zidan Rociok, zuekin astearterako gelditu ondoren, eta berehala azaldu nion guztia.

Uztailean ikusiko diogu berriro ere elkarri.

USOA MENDIKUTE

## BERAIEKDIÑOĖ/ Aitziber Azkondo



*Munduko futbol kopa iritsi dela...*

**D**uela astebete hasi zen Munduko Futbol Kopa. Lehenengo aldia da Europa eta Ameriketarik kanpo jokatzeko dena, eta gainera bi herrialdek antolatu dute: Hego Koreak eta Japoniak. 32 selekziok 20 estadioetan jokatu dute, inoiz baino segurtasun neurri handiagoekin. Argentina eta Frantzia dira, agian, Kopa irabazteko faborito nagusiak. Baina argentinarrak aurten ez diote futbolari so handirik egingo; nahikoa dute Corralito-ak egin duen jokaldiarekin. Ekainaren 30ean jokatu da finala Yokohaman... ai ama! Hilabete osoa futbolari belarritik eta begietatik sartu-irtenean. Espainiak lehen partida irabazi zuen. 52 urte lehen partida irabazi gabe. Zenbat? 52. 52 urte. Joder! Entzun dudala! 52 urte izan dira. Argi geratu da ezta? Eskerririk asko Jabi De Pedro. Izugarrizko lana egin zenuen. Baina gogoratu Realak ere merezi duela!

Futbola gustuko izan ala ez, mundialaren gorabeherak entzungo ditugu. Hala ere, ematen digu herrialdea ezagutzeko aukera. Esaterako, egunkarietan mundialaren inguruan agertzen diren gauza askoren artean bitxikeriak ere irakurri daitezke. Korea edo

**"Euskal selekzioa gogoratu genuen Arbizun. Askok amets egin dugu mundial batean zer egiteko gai izango ginen"**

Japonia bisitatzera animatzen bazarete, adi ibili. Eraikuntzek ez dute zerbakiarik. Taxistari ezin diozu Kawakami kaleko 4. zenbakira eramateko esan. Bestalde, inoiz ez erabili laugarren zenbakia. Aipatu ere ez egin. Inon ez da

azaltzen. Bazkaltzeko lau lagun zaudetela, ba lagun berria egin eta bazkaltzera gonbidatu. Korean, laugarren zenbakiak heriotzaren soinua bera du eta zorte txarra saihesteko, ezabatu egin dute.

Futbolarekin jarraituz, behin hasiz gero... pasa den asteburuan euskal selekzioa ere gogoratu genuen Arbizun. Askok amets ere egin dugu mundial batean zer egiteko gai izango ginenaren inguruan, ezta?

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larranaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 7**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 8**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- DOMEKA, 9**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 10**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 11**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 12**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 19 63
- EGUENA, 13**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46  
Ertzaintza .... 943 76 53 40  
Osasun etxea .... 943 76 24 40  
Asepeyo .... 943 76 16 43  
Pakea .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua .... 943 76 62 23  
Odol emaleak .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak. .... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa .... 943 77 91 32  
Igerilekuak .... 943 76 20 51  
Kultura etxea .... 943 77 91 58  
Liburutegia .... 943 77 91 62  
Kiroldegia .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia .... 943 76 14 92  
Erregistroa .... 943 76 13 15  
Jardun .... 943 76 36 61  
Idolaz .... 943 76 65 08  
Erretiratu etxea, Bergara .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratu elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea .... 943 76 26 85  
Bedelkar. .... 943 76 04 68  
Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia .... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                     |                     |
|---------------------|---------------------|
| <b>Santa Marina</b> | Domekak: 10:30.     |
| Domekak:            | <b>Labegarieta</b>  |
| 11:30, 13:00.       | Domekak: 11:00.     |
| Zapatuak: 19:00.    | <b>San Lorentzo</b> |
| Lanegunak: 19:15.   | Zapatuak:           |
| <b>San Pedro</b>    | 20:00.              |
| Domekak:            | <b>Angiozar</b>     |
| 09:30, 12:30.       | Domekak:            |
| Zapatuak eta        | 11:30.              |
| lanegunak: 19:00.   | <b>Moja</b>         |
| <b>Sierbak</b>      | <b>Zaharrak</b>     |
| Lanegunak: 19:30.   | Lanegunak: 8:00.    |
| <b>Osintxu</b>      | <b>Mizpirualde</b>  |
| Domekak: 12:30.     | Lanegunak: 11:45.   |
| Zapatuak: 19:00.    | Zapatuak: 17:30.    |
| <b>Elosu</b>        | <b>Antzuola</b>     |
| Domekak: 10:30.     | Domekak:            |
| <b>Ubera</b>        | 09:00, 11:30.       |
| Domekak:            | Zapatuak eta        |
| 10:30.              | lanegunak: 19:30.   |
| <b>San Juan</b>     | <b>Uzarraga</b>     |
| Domekak: 11:00.     | Domekak: 10:00.     |
| <b>Elorregi</b>     |                     |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**1958AN JAIOTAKOAK**  
1958an jaiotako enafaria ekainaren 15ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (12 euro) Irrintzi kafetegian.

**ODOL EMAILEEN BATZARRA**  
Bailarako odol emaleen Batzar Orokorra izango da ekainaren 16an Arraten. Bazkarirako txartelak (23 euro) Puy eta Guallar farmazietan edo San Antonioko Agirrebeña jantzi denda.

**ODOL ATERATZEA**  
Odol eguaztenean, hilaren 12an, Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera.

**AIZEPEREN BATZARRA**  
Aizepe elkartearen batzarra izango da ekainaren 29an. Batzarrari begira, bazkide-ek eskuragarri dituzte estatutu berriak.

**MENDI IRTEERA**  
Gorla Alpinok eta Pol-Polek hilaren 22an eta 23an Pirinioetara, La Plan ingurura joateko irteera antolatu dute. Izenematea (50 euro) ekainaren 13ra arte zabalik. 943 76 48 51.

**KONTZENTRAZIOA ZAPATUAN**  
*Faxismoari stop! Demokrazia Euskal Herriarentzat* lelopean, kontzentrazioa izango da bihar, zapatua, Epaitegi aurrean, 12:00etan.

**JARDUNENAGENDA**

**OLINPIADAK**  
Gaztetxoaren Arteko Olinpiaden barruan, sukaldaritza saioa izango da zapatu arratsaldean San Martin plazan.

**ASTE BUKAERAKO AISIALDIA**  
Zapatuan, Olinpiada ostean zabalduko dute kartzela eta domeka arratsaldean, ur-jolasak izango dira.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Irizarko lorategia txukuntzeko lanak, abian**

1992ko udaberrian, Irizar jauregiko lorategia txukuntzeko lanak hasi zituzten. Lorategia gune publiko bihurtzeko erabakia hartu zuen Udalak, nahiko baztertua zegoen-eta. Gauzak horrela, erabateko itxuraldaketari ekin zion. Lanak Construcciones Artzamedi enpresak egin zituen.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Fritzixa"*

Piztia, ustez arriskutsua den animalia. -Patata-landara pillia dago sustarra janda. Eztakitt nik ze friztixa dabillen.



GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Egubakoitza, 31 **10 °C**

**MAXIMOA**  
Egubakoitza, 31 **32 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)** **14,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	16 °C	11 °C	0,3 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 30	24 °C	11 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 31	32 °C	10 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 1	30 °C	17 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 2	30 °C	13 °C	1,2 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 3	16 °C	14 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 4	16 °C	14 °C	12,2 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOFILMAK**

**'LA GUERRA DE HART'**

ZUZENDARIA: GREGORY HOBLIT. AKTORE-  
AK: BRUCE WILLIS, COLIN FARRELL.

**HARIA.** William McNamara koronela naziengandik ihes egin nahian dabil, baina Hart tenienteak beste zeregin batzuk ditu...

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

**PUNTAUZIOA:** ● ● ● ● ●



**ETXEPARE-BILINTX LIBRYDENDA**



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

**EKIALDEKO SAIHESBIDEA/** Noranzko bakoitzerako bide bana ditu, baina guztiz bukatzen dutenean, noranzko bakoitzerako bi bide izango ditu

# Tejerako zubi zaharra itxi eta berria irekiko dute datorren astean barrena

MONIKA BELASTEGI


Datorren astetik aurrera erabileratik kanpo geratuko da Tejera bezala ezagutzen dugun guneko zubi zaharra. Ekialdeko saihsbideko lanak aurrera doaz, eta Tejeran eraiki duten zubi berriak beteko du zahar-raren eginkizuna. Gutxi barru, zubi zaharra bota egingo dute.

Ekialdeko saihsbidea eraikitze-ko lanen barruan kokatzen da zubi berria. Oraindik ez dago guztiz bukatuta, baina datorren astean barrena irekiko dute ibilgai-luendako, lanetako arduradunen esanetan. Hori horrela, Labegaraia aldetik GI 627 errepidera irteteko edo sartzeko erabili izan dugun harrizko zubia itxi egingo dute. Eta hemendik gutxira, baita bota ere.

Zubi berria ireki egingo duten arren, ez dago guztiz bukatuta; lehen fasea besterik ez dute bukatu. Izan ere, bigarren fasean beste zubi bat eraikiko dute, eta biak elkarren ondoan egongo dira. Horrela, noranzko bakoitzerako bide bi izango dituen zubi bakarra osatuko dute.

## 23 METRO ZABAL ETA 40 METRO LUZE

Oraingoz, esan bezala, lehen fasea dago bukatuta, eta bigarrena egin bitartean, lehenengo zubi hori erabili beharko dugu; bai noranzko baten zein bestean.



MONIKA BELASTEGI

Oraingoz bi bide ditu zubi berriak, baina bigarren zatia gehitzen diotenean (zubi zaharra dagoen alderantz), laukoa izango da.

Zubiaren bigarren zatia eraikitze-ko lanak ere hasi dituzte dagoeneko. Orain eraiki duten lehen zatiaren eskuineko aldean eraikiko dute, zubi zahar-raren gainean, gutxi gorabehera; eta

ibaiaren kontran zegoen *Ibarguren* baserriari eragin dio.

Duela gutxi, bota egin zuten baserria, zubia haraino iritsiko da-eta. Horrez gainera, harrizko zubi zaharra ere bota egingo dute,

zubi berria eraikitze-ko lanek aurrera egin ahala.

Zubiaren bi faseak edo zatiak bukatzen dituztenean, 23 metroko zabaleran lau errei edo bide izango ditu, noranzko bakoitze-

rako bi. Eta luzerari dagokionez, 40 metro izango ditu.

Bestalde, zubiaren mutur bakoitzean biribilune bana eraikitzen ari dira; ez daude amaituta eta ez dira martxan hasiko.

*Ekialdeko saihsbidearen lanei dagokie Tejerako zubi berria*

*Oraingoz, bide bi ditu, baina guztiz amaitzen dutenean, laukoa izango da*

*'Ibarguren' baserria bota egin dute eta zubi zaharra ere botako dute*

# Irailerako guztiz bukatuta egongo da industrialdea

MONIKA BELASTEGI

1997. urtean ekin zioten industrialdea eraikitzeari, eta dagoeneko lan guztiak amaitzeaz dira. Urbanizazio lanak bukatzea egunetako kontua da, eta azkeneko pabiloia eraikitze-ko lanak uztailean amaitzea aurreikusi dute.

MONIKA BELASTEGI

Irailerako erabat bukatuta egongo da Industrialdea. Partzela pribatuetan 47.627 metro koadro ditu, 39.270 metro koadroko azalera eraikigarria eta aparkalekuak bezalako gune askeetarako beste 38.489 metro koadro. Aurreikusita zegoen moduan, 36 lantegi kokatuko dira eta dagoeneko ia guztiak martxan daude.


Industrialdea eraikitze-ko lanak hainbat fasetan egin dituzte 97an lanak hasi zituztenetik hona. Lehenengo urratsa Cerrajerako eraikin handiena zahar-

berritzea izan zen. Horren ondoren, jardunean dauden bi enpresari saldu zion pabiloia Debagoieneko Industrialdeak. Bigarren urratsean, 1999. urtean, hiru pabiloia eraiki zituen Industrialdeak, eta 19 enpresari alokatu dizkio, erosteko aukerarekin.

Hirugarren fasean beste bi pabiloia eraikitze-ko partzelak urbanizatu zituen Industrialdeak. Gero, lur hori Lazpiur eta Asa Coak enpresei saldu eta eurak arduratu dira nor bere pabiloia eraikitzeaz. Laugarren urratsean amaitu berria beste bi pabiloia egin dituzte, eta bakoitzean bost enpresa kokatu. Pabiloia horiek eraikitze-ko, enpresek lurra erosi zieten Sprilur SARI batzuek eta Debagoieneko Industrialdeari besteek, eta elkarte izaera hartuz, enpresak arduratu ziren eraikitze lanak esleitzeaz.

## AZKENEKO URRATSAK

Lan guztiak bukatze-ko, azken pabiloia eraikitze-ko lanak amaitzea besterik ez da falta. Uztaile-



MONIKA BELASTEGI

Cerrajera zenaren eraikin handiena zaharberri egin dute eta erlojua dagoen eraikinean kanpoko paretak utzi dituzte.

rako amaituta egongo ei da eta bi solairutan banatuta bost enpresa kokatuko dira; nahiz eta oraindik adjudikazio bat bakarrik dago-

en eginda. Azkeneko pabiloia hori ere Debagoieneko Industrialdeak eraiki du eta hara joango diren enpresei alokairuan utziko die,

erosteko aukerarekin.

Urbanizazio eta eraikitze lanek 15.200.000 euro inguruko aurrekontua izan dute.



MONIKA BELASTEGI

Estepan Plazaola, Patxi Goenaga, Victoriano Gallastegi, Lore Leanizbarrutia eta Koldo Pereira aurkezpen ekitaldian.

**EUSKARA/** Udaleko, Jaurlaritzako eta Aldundiko arduradunek aurkeztu zuten

## Aurkeztu dute Bergarako Euskara Biziberritzeko Plana

MONIKA BELASTEGI

**Udala Bergarako Euskara Biziberritzeko Plana diseinatzeko lehen urratsak ematen hasi da. Horren berri eguzten iluntzean egindako aurkezpenean eman zuten. Udaleko, Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren aurkezpenean.**

Osoko bilkuren aretoan izan zen aurkezpena eta bertan Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak, Patxi Goenaga Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Lore Leanizbarrutia Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusiak hartu zuten parte.

Bestalde, herriko talde, elkarte, komertzio, industria eta eskalgintzarekin lotutako banakak ere gonbidatu zituzten aurkezpenera.

1999. urtean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Herrietara moldatzeko hamar eredu prestatu zituzten eta Bergarari C2 ereduak dagokio: biztanle kopurua 10.000tik gora eta biztanleriaren %50-70 euskalduna duten herriei dagokien ereduak.

Orain, EAeko 14 udalerrri eredu horietan oinarrituta eta bakoitzaren egoera kontuan izanda nor bere plana garatzen ari dira.

### LEHENENGO URRATSAK EMANDA

Bergararen kasuan, Udal arduradunak plana diseinatzeko lehen urratsak ematen hasi dira: diagnosa eginga dago, eta hurrengo urteetarako lanaren zirriborroa egiten ari dira. Horretarako, Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin lankidetzan ari da.

Hortxe kokatzen da, hain justu, eguzteneko aurkezpena. Gonbidatutako eragile guztien aurrean plana nola egingo den erakutsi zuten, batetik; eta, bestetik, parte hartzeko gonbita ere egin zieten. Gainera, Bergararen euskararen egoera zein den agertzen duen azterketa soziolinguistikoren berri ere eman zuten.

### ERAGINA ESPARRU GUZTIETAN

Planaren bitartez, herrian euskararen normalizazioan orain arte egindako lana osatu nahi du Udalak. Herriko esparru guztiak hartuko dituen plana egin nahi dute. Orain arte esparru berriak apurka-apurka hartu (aisialdia, kultura, kirola, administrazioa...) eta esparru horietan euskara normalizatzeko planak martxan jarri joan dira. Orain diseinatzen ari direna izango da esparru guztieko eragingo dien lehenengo Plan Estrategikoa.

Azken baten, helburua da euskarari dagokion lekua egitea bai Udal barruan baita udalerriko esparru guztietan ere.

## Egoera soziolinguistikoa

- Bergarako biztanleriaren %69 dira euskaldunak, %10 elebidun hartzaileak eta %21 erdaldun elebakarrak.
- 20 urtetik beherako gazteen %90-95 euskaldunak dira.
- Etxean euskara gehien edatetuek erabiltzen dute. Gutxiak, berriz, 25-34 urte artekoak.
- Azkeneko 10 urteetan euskararen kaleko erabilerak ez du orokorrean aldaketa nabarmenik izan.
- Ordezkarri politikoen kasuan, 17 kideetatik, 16 euskaldunak dira.
- Udal langileei dagokienez, langileen %80 euskaldunak dira. Bulegoetan dabilzanen %100 dira euskaldunak.
- Industrian dihardute lan egiten duten bergararren %53ek. Horietatik, %59 dira euskaldunak.

## LABUR

### Txalaparta ikastaroa eta jolasleku ibiltaria Jardunen euskara elkartearen eskutik

Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak. Ekainaren 17tik 21era bitartean izango da, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea zabalik dago, eta ekainaren 14an itxiko dute Jardunen bulegoan eman daiteke izena (kultura etxea) edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 telefonoetan. Prezioari dagokionez, bazkide endako bederatzi euro izango da eta gainerakoendako, 12 euro.

Horrez gain, aurrera jarraitzen du jolasleku ibiltariak. Hirugarren saioa gaur izango da, 17:00etatik aurrera, Espoloiari; laugarrena, berriz, ekainaren 21ean izango da Usondo parkean.

### San Martzialerako mahaiak alokatzeko epea zabalduko dute ekainaren 10ean

San Martzialgo erromeriarako mahaiak alokatzeko epea ekainaren 10ean zabalduko dute eta ekainaren 20ra bitartean egin ahal izango dira eskaerak. Kultura etxean egin beharko dira eskaerak, 17:00etatik 20:00etara, eta mahai bakoitzaren alokairua 18 euro izango da.

### Zapatuan amaituko da UNEDek antolatutako Udako Ikastaroetan izena emateko epea

Bihar amaituko da UNEDek 25. urteurrenaren barruan antolatu dituen Udako Ikastaroetan izena emateko epea. Matrikula egin edo edozein argibide eskatzeko, 943 76 90 33 telefonora dei daiteke, edo bestela, [www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara) web helbidera sartu.

Lehenengo aldia da Bergarako zentroak Udako Ikastaroa antolatu duena, eta 35 ikastaro egongo dira, hiru jakintza arlotan banatuta: Filosofia eta Osasuna, Gizarte Zientziak eta Psikopedagogia. Gizarte Zientzien arloan 10 ikastaro emango dituzte, Euskara Justiziaren Arloan, esaterako. Filosofia eta Osasunaren arloan, zazpi; Marx XXI. mendean, besteak beste. Eta Psikopedagogian, 18; tartean, Hiperaktibitatea eta Aldaketak Haurraren Izaeran.

### Bizkarreko minak zelan prebenitu izango du hizpide egunean M. Marmier medikuak

Kultura etxean, 19:00etan, egingo du hitzaldia Michel Marmier bizkarrezurreko espezialistak. Hitzaldiaren xedea da herritarrek informatzea, gaur egungo bizimoduak dela eta, giza anatomiaren elementu zigortuenetarikoa bihurtu den gorputzaren hain zati garrantzitsuak. Bizkarreko herritar ugari jasaten duten mina da; hori horrela, eguneroko bizitzarako prebentzio neurriak azalduko ditu, besteak beste, hilaren 13an egingo duen hitzaldian.

### Afan izeneko enpresa batek postontzietara bidalitako informazioa gezurtatu du Udalak

Udalak, helarazi digun ohar baten bitartez, egunotan Afan izeneko enpresa batek etxeetako postontzietara bidali duen panfletotako informazioa gezurtatu nahi du.

Panfletu horrek dio Eibarko eta Bergarako udalkek deialdiak egin dituztela hiru udaltzain, hamaika lan-kontratupeko eta zazpi administralari laguntzaile kontratatzeke.

Bergarako Udalarri dagokionez, informazioa egiazkoa ez dela adierazi du, eta aditza ematen du une honetan Udalak ez duela deialdirik eginga; ezta 2002. urteko lan eskaintza onartuta ere.

### Dendarien elkarteak, Bedelkarrek, udako denboraldia hasi du txartel banaketarekin

Bergarako Bedelkar dendarien elkarteak udako denboraldiari ekin dio. Hori horrela, hainbat zozketa-txartel kaleratu ditu; ohi bezala, hainbat komertzio, taberna eta jatetxetan banatuko dira txartelak. Zozketa uztailaren 8an izango da eta hiru sari egongo dira: lehenengoa 750 eurokoa izango da, bigarrena 450 eurokoa eta hirugarrena, berriz, 300 eurokoa.

### Alkoholiko Anonimoek hitzaldia egingo dute astelehenean, hilaren 10ean, kultura etxean

Intxortak, Bergarako Alkoholiko Anonimoen elkarteak, 67 urte bete ditu aurtun. Hori dela eta, elkartekoek hitzaldia egingo dute ekainaren 10ean, 20:00etan, kultura etxean. Hitzaldian alkoholak eragiten dituen kalteak eta alkoholismoaren arazoak jardungo dute. Irekia da, eta nahi duen guztiak har dezake parte.

**ERREPORTAJEA/** Lucia Farras, Carmen Garai, Jesus Igartua eta Elisabet Agirrezabal San Antonioko kaperaz arduratu dira ia mende erdiz

# San Antoniori debozioa, gustuko eta ia bizitza osorako ofizio bihurtzen denean...

MONIKA BELASTEGI

Ekainaren 13an, San Antonio auzoko lau lagun omenduko ditu Gure Ametsa elkarteko Kultura batzordeak: Elisabet Agirrezabal, Jesus Igartua, Carmen Garai eta Lucia Farras. Auzoko ermita zaintzen jardun dute urtetan, eta egindako lana eskertu nahi diete.

Ereiten duenak jaso egiten du, dio esaera zahar batek. Elisabet Agirrezabalek, Jesus Igartuak, Carmen Garaik eta Lucia Farrasek datorren egunean jasoko dute ereindako haziaren uzta. San Antonio auzoko ermita zaintzen jardun dute urtetan: 42, 73, 56 eta 39 urtez, hurrenez hurren. Eta San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteko Kultura batzordeak omendu egingo ditu lan hori egin izanagatik.

Laurek eskertzen dute elkar-tekoen detailea. Elisabetek, bihotz-bihotzez; Jesusek, harri-dura apur batekin; Carmenek, "merezi izango dugulako izango da" esanez; eta Luciak, "eskerrak gurekin gogoratu diren" irribarretsu eta estimatu batekin.

Gustura egin dute denek kaperaz zaintzeko eginkizuna, hasiera-hasieratik, gainera. Jesusek amari laguntzen ei zion meztara umetan; moja zaharretara hasieran, eta han eliz mutil hasi zen. Horren ondoren, San Antonioko kaperan hasi zen eliz mutil, hamar bat urterekin-edo. Ordu-tik hona, horretan jarraitzen du. Bestalde, goizero atea zabaltzeko ardura ere Jesusena izan da. Dena dela, "lehen, sokatik tira eginda jotzen nuen kanpaia, baina 1970. urtetik aurrera elektrikoa jarri zuten, botoia sakatu besterik ez dut egin behar".

Emaztea, Carmen, senarraren arrimura hasi zen kaperan laguntzen: "Elgetatik San Antoniora ezkondu nintzenean, eta, batik bat, garbiketa lanetan lagundu izan dut. Elisabetena debozio kontua izan da: "Benetako debozioa diot San Antoniori, eta horregatik hasi nintzen laguntzen 60ko



Lucia Farrasi, Carmen Garairi, Jesus Igartuari eta Elisabet Agirrezabali ekainaren 13an egingo diete omenaldia.

hamarkadan, eta 1965ean administrazio lanetan sartu nintzen buru-belarri". Luciaren kasua bestelakoa izan da: "Ni pixka bat laguntzearen hasi nintzen, eta, poliki-poliki, meza ematea izan ezik, ia denetarik egin izan dut".

## KAPERAREN PENAZ

Ondo gogoratzen dute kaperaz bota zuten eguna. Ia aho batez aipatu dute 1997ko abenduaren 23a. Egund hartan sentitu zutena "ezin dugu hitzez azaldu", baina izugarriko pena eta negarra bezalako emozioak aitortu dituzte. Ordu-tik hona, Kamineroen etxe azpiko garajeetan izan dute ermita, baina hortik ere irten behar izan dute. Eguaztenean, ermita berria inauguratu zuten Toki-Eder plazan. Auzoa izaten ari den aldaketa ere aipatu dute: "Onerako izango dela esaten dute, baina momentuz, auzoa triste dago".

Dena dela, San Antoniok orain arte ondo zaindu dituela esan dute, eta aurrerantzean ere halaxe izango den zalantzarik ez dute.

## Lau lagun, lau anekdota



**CARMEN GARAI**  
KAPERAN ITXITA

Gau baten ahaztu egin zitzaidan kaperako atea ixtea. Semeetako bat bidali nuen giltzarekin. Itxi zuen atea, baina ez zen konturatu emakumezko bat barruan zela otoitz egiten.

Emakumea goiko solairura igo zen, leihotik dei egitera, baina denboratxo baten ez zuen inork entzun. Ordurako, familia kezkatuta zegoen, baina dena ondo amaitu zen.



**JESUS IGARTUA**  
UHOLDEAK

Bi uholde handi izan dira, baina nik gogoratzen dudana handiena 1984. urtekoa izan zen. Aldareraino iritsi zen ura, eta kalte ugari eragin zituen kaperan. Eserlekuak eta lurra oso egoera kaskarrean utzi zituen, eta hainbat apaingarri ere hondatu edo eramane egin zituen. Guztia berritu behar izan genuen. Ia milioi erdi kostatu zen, dirutza handia ordurako.



**ELISABET AGIRREZABAL**  
ZORROA LAPURTU

Kandela berriak jartzera joan nintzen batean, mutil gazte bat zegoen kaperan, eta errezatzen zegoela pentsatu nuen. Ura eskatu zidan, eta nik, edalontzirik ez genuela, baina ura non zegoen esan nion.

Okindegira joan, eta ordaintzera nindoala, txanponen zorroa ez, billeteena lapurtu zidala konturatu nintzen, dokumentazio, txartel eta guzti.



**LUCIA FARRAS**  
ANDRE BAT BARRUAN

Eguerdietan, mutikoak eskolatik irtetean, kaperan sartu eta kandlekin endredatzen ibiltzen ziren. Koruan ere ezkutatu nintzen, baina ez nituen mutikoak harrapatu, eta azkenean, kaperaz eguerdiko ordu horretan ixtea erabaki nuen. Behin, emakume bat utzi nuen han itxita. Dena dela, berehala konturatu ginen, garrisika hasi eta entzun egin zutelako.

## UDAKO IKASTARO TRINKOAK: uztailaren 1etik 19ra

**INGELES  
FRANTSES  
ALEMANA**

- GOIZEZ nahiz ARRATSALDEZ
- Maila eta adin guztiak
- Egutero HIRU edo LAU ORDU
- Matrikula zabalik ekainaren 28ra arte

**STONE HOUSE**  
HIZKUNTZAK

943 76 06 87  
Ibargarai 18, behe-3

BERGARAN  
BULEGO BERRIA



BERGARA LEGAZPI  
Ibargarai 3. Santikutz 8.  
943 76 97 97 943 73 05 25

10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!



## MAKINA BERRIA BASORAKO

**N**ekazari lurretan hainbat lan egiteko makina berria erosi du Udalak. Ez da, gainera, nolanhiko makina; izena bera ere berezi samarra dauka: Rapid Euro, hain zuzen ere. Pentsa daiteke, hortaz, azkar-azkar egingo dituztela hemendik aurrera belar mozte lanak, merkatuko makinarik onenetakoa erosi dute-eta. Batez ere, lursail handietan belarra mozteko erabiliko dute makina hori, baina erabilera askotarikoa da: elurra kentzeko, belarra batzeko... Dagoeneko estreinatuta dute; izan ere, egun hauetan, San Martzialgo inguruak txukuntzen jardun dute.

## IGERILEKUKO ZELAIA IREKI BAI, BAINA EGUZKIRIK BATERE EZ

**J**oan den astean zabaldu zuten igerilekuetako zelaia, nahiz eta kanpoko igerilekuak ez dituzten ekainaren 15era arte zabalduko. Horrela, jendeak eguzkia hartzera joateko aukera izan du; eguraldiak, baina, ez du horretarako askorik lagundu; eguzkia ia ikusi ere ez dugu egin. Azkeneko asteburuan eguzkia izan dugun arren, gainerako egunak lainoan eta euripean pasatu ditugu. Esan bezala, ekainaren 15ean zabalduko dute kanpoko igerilekua; ea, bada, ordutik aurrera bainu bat hartu eta eguzkia hartzeko aukera izaten dugun, ordua ere bada eta!



## OLINPIADAK EUSKARAZ, GAZTEENDAKO

**B**igarren aldiz antolatu ditu aurten Jardun euskara elkarteak gaztetxoendako herriko Olinpiadak; horrela, asteburuan jarduera ezberdin bat egin, kirol pixka bat egin eta euskaraz jolasteko aukera ematen die gaztetxoei Jardunek. Zapatu arratsaldero hainbat gaztetxo elkartzen dira, eta era guztietako jolas eta kirolak egiten dituzte, Jarduneko dinamizatzaileekin batera: sukaldaritza, hockeya, txantxikuaren jolasa... Maiatzaren 25ean hasi ziren Olinpiada horiek, eta esan bezala, zapatu arratsaldero batuko dira jolaserako, ekainaren 22ra arte. Lehendabiziko egunean hockeyan jardun zuten Ipintzan elkartutako gaztetxoek. Belarrik ez eta, jolaslekuan jardun zuten.

## ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## INGELES

ikastaro trinkoak

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte  
Haurrak, gazteak eta helduak

Prestakuntza berezia  
First Certificate titulua  
ateratzeko



School of English

INFORMAZIOA:  
Ibargarai 31,  
barruko plaza.  
BERGARA  
Tf. eta faxa  
943 76 03 53.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



**BERGARARRAK MUNDUAN**

**MIKELDI BENGEOA**

30 URTE / INGENIARIA / STOCKHOLM

**“Familiaren, lagunaren eta, batez ere, Pirinioen hutsunea nabaritzen dut”**

AINTZANE IRIZAR

**L**au urtez Bilbon bizi ondoren, Stockholmen bizi da iazko abuztuaz geroztik. Bilbon neska suediar bat ezagutu, eta harekin bizi izan zen. Gero, esan bezala, Stockholmera joan ziren bizi izatera.

“Itsu-itsuan etorri nintzen Suediara, hizkuntza bera ere ez nekien”, gogoratzen du Mikeldik. “Lehendabiziko sei hilabeteak jo eta ke suediarra ikasten jardun dut, eta seigarren hilabetean topatu nuen lana”, azaldu digu. Telekomunikazio enpresa baten dihardu ingeniari lanetan.

Nahiko ondo moldatu ei da Suediako bizimodura, “baina negua gogor samarra izan da niretako”, diosku. Arratsaldeko hirurak aldera iluntzen ei du, eta horretara ohi-

tuta ez dagoenari gogorra egiten zaio. Bestetik, eguraldia ere nahiko goibela izaten ei da neguan. Horrek, gainera, eragin handia du suediarrengan: “Neguan isil-isilik egoten dira, kalean inork ez du berbarik egiten. Lehenengoz eguzkia ateratzen denean, erabat aldatu

*“Itsu-itsuan etorri nintzen Stockholmera; hizkuntza bera ere ez nekien”*


tzen da bizimodua: denak berba egiten hasten dira, harremanak izaten... Benetan harri-garria da”, azaldu digu.

Udan, berriz, goizeko hirurak aldera argitzen du. Uda eta negua zeharo desberdinak dira, hortaz, Suedian.

Familiaren eta lagun hutsunea nabaritzen ei du Suedian bizi denetik, baina bada go bereziki faltan sumatzen duen gauza bat: “Pirinioen hutsune ikaragarria sumatzen dut; Suedia lau-laua da, benetakoa mendi bat ikusi nahi izanez gero, Norvegiara joan beharra dago”, azaldu digu.

Urte batzuetan, behintzat, Suedian bizi izateko asmoa dauka Mikeldik, baina baita noizbait Euskal Herriara bueltatzekoa ere: “Familiaren, lagunaren eta mendien ingurura bueltatzea espero dut”.

**MINGAINARITIRAKA**



**Jose Gómez**

LABEGARAIETAKO TXAPELKETAKUA

**Pesca moduan ezagunagua da Jose, Labegaraietako Futbito Txapelketako antolatzaileetako bat. 37 urte dauzka, ezkonduta dago eta bi seme dauzka. Puntuari euki dabe bigarrena, Gorka.**

**Noiztik diharduzu Labegaraietako txapelketia antolatzen?**

Urte asko dira... Hamar bat izango dira. Hiru lagunek jarduten dogu antolatzen: Pedro Ricok, Harold-ek eta hirurok.

**Futbolian jokatzia, ikustia ala antolatzia nahixago?**

Jokatzia, dunda barik. Bar Canalejasen jokutzen dot nik; bueno, egiza esan, azkenaldixan ez dot askorik jokatu; ekipuan antolatzaile lanak egittia be tokatzen jat.

**Futbitua ala futbola?**

Futbituan gehixago jokutzen dot, baiña bixak gustatzen jat.

**Ze ekiporen zalia zara?**

Real Madrilen zalia naiz, baiña ez naiz forofua. Reala be animatzen dot, e!

**Gustoko jokalaria bat?**

Raul.

**Eta entrenadore bat?**

Fabio Capello.

**Semiak be heredauko zeban futbole-rako zure afiziñua, ezta?**

Ba, bai; asko gustatzen jako futbolian egittia.

**A! Aitta izan berri zarela be enterautagare. Zorionak!**

Eskerrik asko.

**Manixa bat?**

Mingainari haginka egittia; txiklia izango balitz moduan haginka egitten jat, baiña ez dot miñik hartzen, e!

**Bizio bat?**

Futbola.

**Amets bat?**

Semiak ondo bizi daittezela.

**Mundiala zeinik irabaziko dau?**

Argentinak.

AINTZANE IRIZAR

**NIREBIDAIAHURA/ Unai Aperribai**

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK / 1999ko urrian

**S**an Frantziskon Inigo Gallastegi bergararra zegoela-eta, hara joatea erabaki genuen lau lagunek: Jakue Mendizabal, Inigo Manso, Asier Agirrebena eta laurok joan ginen. Udan oporrik ez geneukanez, urrian egin genuen bidaia. Jakuek eta biok bi aste egin genituen han, eta beste biek hiru aste egin zituzten.

Lehenengo, San Frantziskora joan ginen, eta Poti-ren etxean hiru egun pasatu genituen. Gero, automobil bat alokatu eta Yosemiteko parkera joan ginen; Gran Canyonera ere joan ginen, handik Las Vegasera eta Los Angelesera.

Kaliforniaren zati handi bat ikusi genuen. Kostaldea oso berdea da, baina zenbat eta barrurago sartu, orduan eta lautada gehiago eta toki lehorragoak daude. Las Vegas, esate baterako, desertuan dago; desertu baten erdian oasi bat dela esan daiteke. Hotelak, kasinoak eta jatetxeak besterik ez dago Las Vegasen; dirua gatzatzeratzen joaten da hara jendea.

Yosemiteko parkean egun bat egin genuen. Oso polita da parke hura. Izugarria da hango sekueiak bertatik bertara ikustea. Parkean badago mendi bat, Gran Capitan izenekoa, eta ikusgarria da hura ere: jende asko joaten da hara eskalatzera. Goraino iristeko bizpahiru egun behar izaten dituzte, eta hantxe egiten dute lo, zintzilik. Zeharo harrituta geratu nintzen harekin. Gran Canyon ere ikusi genuen; turismo-hegazkin baten zeharkatu genuen.

San Frantzisko ere asko gustatu zitzaidan; dena auzotan banatuta dago: badaude beltzen auzoak, homosexualenak, hispanoenak... Dena dela, inon ez zara atzerritar sentitzen. Gutxiengoan hiria dela esaten dute, eta halaxe da. Los Angeles baino gehiago gustatu zitzaidan. Dunda barik, edozeini gomendatzeko moduko bidaia izan zen.



*“Las Vegas desertuan dago; desertu baten erdian oasi bat da”*

*“San Frantzisko gutxiengoan hiria dela esaten dute”*

AINTZANE IRIZAR



Begararako laukotea Poti-rekin eta Mexikoko lagun batekin.

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIAREN 20. URTEURRENA



**UDAL**  
EUSKALTEGIAK

Zabalotegi, 13 • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

20 urte zuekin,  
egunez egun, euskaraz.

**Ikasle izandakoen AFARIA**

Inoiz euskaltegian ibilia bazara eta ekainaren 21eko afarirako gonbidapenik jaso ez baduzu, dei egiguzu lehenbailehen!

ETA GAINERA: Ekainaren 14an Mongolia diapositiba emanaldia 19:00etan kultura etxean

TRIATLOIA

# Esteban Lazkanok Lanzaroteko Iron Man proba ezaguna amaitzea lortu zuen


Hamabi ordu eta 47 minutu behar izan zituen igeriketa (3.800 m), bizikleta (180 Km) eta korrikako (42,195 Km) probak egiteko

EDU MENDIBIL

**Benetan proba beldurgarria da Lanzaroteko Iron Man lehia. Distantziak ikaratzekoak dira: 3.800 metro igerian, 180 kilometro bizikletan eta maratoia (42,195 Km) korrika. Esteban Lazkano bergararrak 12 ordu eta 47 minutuan amaitzea lortu zuen.**

Joan den maiatzaren 25ean Lanzaroten jokaturako Iron Man proban mundu osoko 876 triatleta batu ziren: Hawaiko Iron Man entzutetsura joan nahi dutenek Lanzaroten daukate txartela lortzeko aukera, eta horrek ospe handiagoa ematen dio Kanarietako probari.

Esteban Lazkanok 34 urte dauzka eta iaz hasi zen triatloiak egiten. Hain zuzen ere, Debagoieneko Triatloia eta Zarauzkoa amaitu zituen. Haren hitzetan, "oso gustura ibili nintzen bi proba horietan eta uda amaieran, Imanol Pildainekin batera, Lanzarotera joateko aukera aztertzeko hasi ginen". Urrian ekin zion Estebanek proba gertatzeari eta entrenamendu saioak Lanzaroteko proba baino gogorragoak iruditu zaizkio: "Ordu asko sartu beharra dago. Lanetik irten eta entrenatzera joatea ez da batere atsegina batzuetan. Egun askoan



Esteban Lazkano, joan den urtean Zarauzko Triatloian ateratako argazki baten.

BORJA URIARTE

kirol bi tartekatzen nituen. Bizikleta da denbora luzeen eskatzen dizuna, eta negua ez da bizikletan ibiltzeko sasoi aproposena. Karlos Baleztenak duela pare bat urte Lanzaroterako egin zituen

entrenamenduak oinarritzat hartuta, nire kabuz ibili naiz eta urtarrietik hona gogor entrenatu naiz, eguñero ia".

Esan bezala, Lanzaroteko proba maiatzaren 25ean, zapatuan,

jokatu zen. Eguenean iritsi ziren Imanol eta Esteban Lanzarotera: "Haizeak gogor jotzen du Lanzaroten eta hura ikusita bizikleta proba amaitzeko gai izango ez nintzela uste nuen".

## IGERIKETA PROBAN ONDOEN

Proba egunean beldurrak eta nerbioak alde batera utzi eta lan bikaina egin zuen Estebanek. Igeriketa proban moldatu zen ondoren, 117. tokian irten zen eta uretatik. Jarraian, bizikletako ibilbideari ekin zioten partaideek: "Ia uharte osoa zeharkatu genuen, eta jende askok gaintu ninduen arren, uste baino hobeto ibili nintzen. Eta, azkenik, maratoia lasai hartu nuen, ondo bukatzeko asmoarekin bakarrik. Hiru kirolletatik, korrika egiten zait gogorren niri". Proba egunean 16 gradu inguruko tenperatura izan zuten: "Ez dakit zenbat kilo galduko nituen. Kontuak kontu, hurrengo egunetan berehala erreperatu nituen. Proban likido pilo bat hartu nuen eta, horrez gain, barratxo energetikoak eta horrelakoak hartzen genituen. Iron Man proba amaitutakoan masajea hartzera joan ginen, eta primeran afaldu eta gero, lo egin eta goizean ondo nengoen".

Esteban Lazkano Antxintxika Debagoiena taldean ari da eta bihar, zapatua, Debagoieneko II. Triatloian hartuko du parte. Ekainean, Zarauzko triatloia eta Quebrantahuesos txirrindulari proba ere egiteko asmoa dauka. Ondoren, triatloia utzi eta bere betiko zaletasunarekin, mendiarekin, jarraituko duela esan digu.

## Kirol taldeendako Udalaren dirulaguntzak zehaztuta

E.M.

**Udalbatzak kirol taldeei dirulaguntzak emateko araudia onartu zuen joan den asteko bilkuran. Dirulaguntzen lehen zatia zehaztuta dago dagoeneko eta 2. zatia abenduan jasoko dute kirol taldeek.**

Udalak eta kirol taldeek dirulaguntzak banatzeko indarrean zegoen baremoa aztertzeko lau bilera izan dituzte urte hasieratik hona. Inaki Ugarteburu Udal Kirol Zerbitzuko ardura-dunaren esanetan, "taldeei proposamenak egiteko aukera eman zaie eta, ondoren, bozkatu egin dira guztiak. Esan behar da kirol

taldeen partaidetza oso ona izan dela".

Esan bezala, Udalbatzak behin-behineko onarpena eman zion dirulaguntzak banatzeko araudiari maiatzaren 27ko plenoan. Aho batez onartu zen. Ugartebururen esanetan, "kirol egiturak sendotze aldera, bailara mailako taldeei lehentasuna eman diegu dirulaguntzak banatzerakoan eta, era berean, garrantzi handiagoa eman zaie lehiaketa ofizialetan ari diren federatutako taldeei eta kirolariei. Beste nobedadeetako bat zera da: lehen, talde bakoitzean ziren epaile kopurua kontuan hartzen zen dirulaguntzak banatzeko, baina araudi berrian ez da horrelakorik jasotzen".

### DIRULAGUNTZEN 2. ZATIA ABENDUAN

Udalak, guztira, 60.000 euro inguru (10 milioi pezeta) banatuko ditu herriko kirol talde eta kirolarien artean. Fitxa kopuru handiena duenez, Bergara Kirol Elkarteak Futbol Saila izango da dirulaguntza handien jasoko duena. Banakako kirolariei dago-kienez, Javier Breña auto gidariarendako eta Jesus Mari Garcia kulturistarendako ere dirulaguntzak izango dira.

Esan bezala, laguntzen lehen zatia jasoko dute alboko koadroan agertzen diren taldeek. Azaro aldera urteko txostena eta datoren urteko asmoen berri eman beharko dute, abenduan dirulaguntzen bigarren zatia jasotzeko.

### Dirulaguntzen lehen zatia

Iturria: Udal Kirol Zerbitzua

Taldea	Puntuak	Dirulaguntza
Bergara Kirol Elkarte (futbola)	706	9.770 €
Bergara Kirol Elkarte (eskubaloia)	343	2.560 €
Bergara Kirol Elkarte (saskibaloia)	521	3.889 €
Bergara Kirol Elkarte (pilota)	209	1.560 €
Pol-Pol	50	373 €
Ariznoa gimnasia	100	746 €
Badminton Elkarte	88	656 €
Lokatza	231	1.724 €
Beti-Busti	176	1.313 €
Lagunak	130	970 €
Atletiko Zaleak	95	709 €
Xake Taldea	204	1.522 €
Igeri Elkarte	81	605 €
Triatloi Taldea	39	291 €
Shotokan Karate Taldea	118	880 €

**Babeslea**

SPORTLAND  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

IGERIKETA

# Bergara Igeri Elkarteko alebinak, txapelketetan buru-belarri


Euskadiko Eskolarteko Txapelketa eta Igerilari Osoarena izan dira Gasteizen eta Oñatin

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko alebin mailako neska-mutikoei Euskadiko Eskolarteko Txapelketa eta zapatuan Oñatin jokatuak Igerilari Osoaren Txapelketa hartu dute parte. Amaia Andueza Igeri Elkarteko entrenatzailea pozik azaldu da lortutako emaitzekin.

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa izan ondoren, Euskadikoan parte hartzeko txartela lortu zuten Ana Balentziagak, Elisa Kortabarrak, Jone Amasorrainek eta Sara Martinezek. Anak 8. postua eskuratu zuen 100 metroko tximeleta proban eta, horrez gain, 400 metro libreetan 11.a eta 100 metro libreetan 12.a izan zen. Elisa, aldiz, bizkar estiloan 10. eta 17. postuan sailkatu zen, 100 eta 200 metrokoetan, hurrenez hurren. Jone eta Sara, azkenik, bular estiloan lehiatu ziren: Jone 15.a izan zen 200 metrokoan eta 16.a 100 metrokoan eta Sara 17.a izan zen 200 metrokoan.

Tania Meabek, bestalde, Gipuzkoako Eskolarteko Txa-



Elisa Kortabarría, Tania Meabe, Sara Martínez, Ana Balentziaga eta Jone Amasorrain.

pelketan 24.a izan zen 100 metroko bular estiloan proban eta 26.a 100 metroko estilo proban.

**MUTIKOAK OÑATIN**

Era berean, Nielka Iburguren eta Mikel Labakak Igerilari Osoaren txapelketa hartu zuten parte zapatuan Oñatin, beste 39 par-

taiderekin batera. Lau estiloetako 100 metroko probak jokatu ziren. Mikel 10.a sailkatu zen eta Nielka 26.a izan zen.

1991n jaiotakoan artean Erik Gorostiaga 14.a izan zen; tximeletan 50 metro eta beste hiru estiloetan 100 metroko probak izan zituen Erikek zapatuan.

# Nesken futbol taldeak Kopako finalerdia galdu zuen

E.M.

Bergara KEko nesken futbol taldeak Kopako finalerdia galdu zuen Añorga B taldearen aurka, penalti jaurtiketetan. Arauzko 90 minutuak jokatu ondoren, banako berdinketa zen markagailuan. Añorgan jokatu zen eta etxeoak aurreratu ziren lehen zatian. Bergarak bigarren zatian lortu zuen berdinketa, Silvia Valorrek egindako golari esker. Penalti jaurtiketetan etxeoak finago ibili ziren eta finalerako txartela eskuratu zuten.

**AGIRREBARRENAK, AGUR TALDEARI**


Bittor Agirrebarrena entrenatzailearen esanetan, "Ligan baino hobeto ibili gara Kopan. Gure multzoko lehenak izan ginen eta pena izan da finalerdia galtzea. Banakoa egin ondoren, garaipena lortzeko aukerak izan genituen baina ez genuen zorterik izan".

Zortzi denboraldiz entrenatzaile lanetan jardun ondoren, Agirrebarrenak ez du datorren urtean taldean jarraituko. Igor Larrañaga izango da haren ordezkoa, Uxue Lazkanoren eta Iñigo Ramírezen laguntzarekin.



Futbol nesken taldeak penaltietan galdu zuen Añorga B taldearen aurka.

FOTOKIROLA



**XII. Kirol Argazkien Lehiaketa**

Udalak eta Kirol Zerbitzuak XII. Kirol Argazkien Lehiaketa deitu dute. Lanak zuri-beltzean zein koloretan egin ahal izango dira, eta kategoria bakoitzeko hiru onenendako sariak izango dira. Euskal Herri osoko argazkizaleek irailaren 25era arte izango dute zabalik lanak entregatzeko epea. Argibide gehiago Kirol Zerbitzuan edo 943 76 30 90 telefono zenbakian. /ARGAZKIA: ADOLFO VÁZQUEZ.

PILOTA

**Bergara KE Herri Arteko Txapelketatik kanpo egubakoitzean Aiaren kontra galdu ondoren**

Bergarak 2-1 galdu zuen egubakoitzean Aiaren kontra Herri Arteko Txapelketaren itzulerako kanporaketan. Bergaran emaitza berekin galdu zuten. Bestalde, Ander Muguruzak Agestaren kontra jokatu du domeka goizean Elgetako Lau 1. erdiko Txapelketa. Martitzen arratsaldean, berriz, Argoterekin batera, Bergara Hiriko finalerdia izango du, Sorarrain-Báez bikotearen aurka.

ARETO FUTBOLA

**A Ze Flaxa luzapenean nagusitu zitzaion Artusamak taldeari Superkopako finalean**

A Ze Flaxak 5-4 irabazi zion Artusamaki zapatuan, Superkopako finalean. Partidua launa bukatu zen eta luzapenean Jose Ignacio Luceñok egin zuen garaipenaren gola. Patxi Vallejok (3 gol) eta Juantxo Izuskizak sartu zituzten txapeldunen gainerako golak.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefona: 943 76 16 63. BERGARA





MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako berrehun ikasle inguruk hartuko dute parte Udaberriko Kontzertuan domekan.

Domekan izango da, eta kontzertua egingo dute, 12:00etan, Udal Pilotalekuan

## Berrehun bat ikasle Musika Eskolaren Udaberriko Jaian

MONIKA BELASTEGI

**Domekan, Udaberriko Kontzertua egingo dute Musika Eskolako ikasleek Udal Pilotalekuan. 200 bat ikasle hartuko dute parte zortzi taldetan banatuta; koralak, haize eta soka taldeak, esaterako.**

XIV. Udaberriko Jaialdia ospatuko dute Musika Eskolako ikasle eta irakasleek. Urtero gisa, eguna ospatzeko hainbat ekitaldiz osatutako egitaraua antolatuko dute, eta ekitaldi nagusia domekan, 12:00etan, Udal Pilotalekuan egingo duten kontzertua izango da. Edozelan ere, horren aurretik, 11:30ean, kalejira egingo du Trikitixa taldeak.

Kontzertuan Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolako talde batek eta Bergarako Musika Eskolako zortzik hartuko dute parte; guztira, 200etik gora ikasleek. Kontzertuaren lehenengo atalean Bergarako Musika Eskolako Gazte Bandak, Akordeoi Orkestrak, Umeen Abesbatzak eta Orkestra Sinfonikoak eta Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolako taldeak bakarkako lana egingo dute. Talde bakoitzak egingo duen egitaraua ondoko taulan duzue. Horren ondoren, Bergarako Musika Eskolako ia talde guztiak elkartu eta *The Wizard of Oz* filmaren soinu-bandako kantu bi joko dituzte.

Udaberriko Kontzertua amaitu eta gero, eta urteroko ohiturari jarraituz, 14:30ean, herri bazkaria egongo da. Espoioian eta

horren ondoren, guztiondako jaialdia, Espoioian hori ere.

### EKAINEAN, KONZERTU UGARI

Musika Eskolako neska-mutikoen kontzertu sorta zabala eskainiko dute ekainean barrena, guztiak ere 19:00etan; honako hauek, hain justu ere: ekainaren 10ean, klarinete kontzertua Zabalotegi aretoan; ekainaren 11n, biolin, biola eta biolontxelo kontzertua Zabalotegi aretoan eta flauta eta saxofoi kontzertua Musika Esko-

lan; ekainaren 12an, piano kontzertua Zabalotegi aretoan eta ordu berean, trikitixa kontzertua Musika Eskolan; ekainaren 13an, beste emanaldi bi egongo dira: Musika Eskolan tronpeta emanaldia eta Zabalotegi aretoan, berriz, gitarra, metal, oboe eta txistu kontzertua; ekainaren 14an, akordeoi kontzertua egongo da Zabalotegi aretoan; eta, azkenik, ekainaren 21ean, diplomen banaketa eta azken kontzertua Musika Eskolan.

## Kontzertuaren egitaraua

### AZPEITIKO JUAN DE ANTXIETA MUSIKA ESKOLA

**Zuzendaria:** M<sup>a</sup> Angeles Del Val  
*Touridion* (XVI. mendeko dantza) / *Penny Lane* (The Beatles) / *Erin shore* (The Corrs)

### BME-KO GAZTE BANDA

**Zuzendaria:** Alberto Laskurain  
*Tema de Lara* (Maurice Jarré) / *The Supreme Diana Ross* (Holland-Dozier-Masser)

### BME-KO AKORDEOI ORKESTRA

**Zuzendaria:** M Jesus Ugalde / **Sopranoa:** Naroa Alberdi  
*Arizona* (Roger Hirschy) / *Titanic* (James Horner)

### BME-KO HAURREN ABESBATZA

**Zuzendaria:** Cristina Larrañaga  
*Atxa Mitxa* (J. Busta) / *Xexenak* (T. Garbizu)

### BME-KO ORKESTRA SINFONIKOA

**Zuzendaria:** Maite Aurrekoetxea  
*Carmen* (Bizet) / *Radetzky Martxa* (J. Strauss)

### BME-KO TALDEAK: goian aipatutakoak, koralak, eta solfeoko hezkuntzaurrea eta 1. eta 2. mailak

**Zuzendaria:** Maite Aurrekoetxea  
*The Wizard of Oz* filmaren kantu bi (Harold Arlen)

## San Martin Ikastetxeko ikasleen lana, Guggenheimen

MONIKA BELASTEGI

**Guggenheim museoaren Artea Ikasbide proiektuan jardun dute buru-belarri San Martingo ikasleak. Xedea eskolaren logotipoa sortzea izan da. Lortu dute, eta euren lana Bilboko museoan dago ikusgai.**

Ikastetxean lantzen diren ohiko gaiak –matematika edo hizkuntza, esaterako– plastikaren bidez jorratzea du oinarri Artea Ikasbide proiektuak, eta EAEko bederatzik ikastetxetan jarri du abian proiektu hori Guggenheim museoak. Bestalde, proiektua aurrera ateratzeko orduan artista baten gidaritza ere izan dute 6-11 urte arteko ikasleek, San Martin Ikastetxearen kasuan, Manu Munia-tegiandikoetxea bergararrarena.


Oinarria hori izanik, proiektuaren azken emaitza, hau da, proiektua zertan gauzatu den,

ikastetxe bakoitzaren aukeran geratu da. San Martingo ikasleek zentroarendako logotipoa sortzea izan dute xede.

### LOGOTIPOA, LANKIDETZAREN FRUITUA

Urtarrilean hasi ziren logotipoa sortzeko bidea jorratzen, eta lan handia egin behar izan dute eskolarendako logotipo aproposena sortzeko: Bergararen historia batu eta gaur egungo argazkiak atera; San Martinen historia batu, ikastetxearen maketan egin, logotipoak zer diren aztertu, zein garrantzia duten, eta abar.

Logotipoa sortzerainoko prozesu hori guztia dago ikusgai Guggenheimen hainbat paneletan, martitzenetik uztailaren 30era bitartean. Baita logotipoa bera ere. Hain zuzen, logotipoan eskolako neska-mutikoak elkarrekin lanean agertzen dira. Hori da eta ikasleek islatu nahi duten eskolaren irudia.



Goian, San Martingo ikasleak agintariek. Behean, ikasleek egindako logotipoa.

## LABUR

### Beart-eko ikasleek Pintura erakusketa ireki dute kultura etxean, ekainaren 23ra arte

Bergarako Beart artisten elkarteko ikasleek Pintura erakusketa ireki zuten atzo kultura etxean. Hamazortzi ikasleren hamazortzi lan daude ikusgai. Duela hiru urte jarri zuten martxan Bearteko egoitzan pintura ikastaroa, eta erakusketa honen helburua da, parte hartu duten ikasleen lanak erakusketa eta zaletu giztiak animatzea. Erakusketa ekainaren 23ra arte egongo da ikusgai kultura etxearen, ohiko ordutegian: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

E, TXO!

**GAZTETXEAK URTE BI**

Ekainean Bergarako gaztetxeak urte bi beteko dituela-eta, hainbat ekitaldi egongo da hilabete osoan; lehenengoak datorren egunean izango dira, ekainaren 13an. Batetik, irratsaio berezi bat entzuteko aukera izango dugu Txapa Irratian, 21:00etatik 22:00etara. Bestalde, 22:00etan, *Trainspotting* antzezlan eskainiko digu Juanlu Escuderok.

Bestalde, bihar, zapatua, Bartzelonako Organikis taldearen kontzertua izango dugu gaztetxean, 22:30ean. Ska-reggae musikaz gozatzeko aukera paregabea, beraz, biharkoa.

**ZINEMA GAZTETXEAN**

Datorren eguaztenean, ekainaren 12an, *Barbarella* filma ikusteko aukera izango dugu Bergarako gaztetxean, 22:15ean.

**EUSKAL HERRIA ZUZENEAN**

Ekainaren 28tik 30era ospatuko dute Arrosan (Behe Nafarroan) Euskal Herria Zuzenean festibala. Hizkuntza eta kultura gutxiagotuen normalkuntza du helburu festibalak. Era guztietako musikaz gozatzeko aukera izango dugu ekaineko azken asteburuan Arrosan, hogeita hamarretik gora musika talde eta bakarlarirekin. Festibal horretarako sarrerak liburu eta disko dendetan daude salgai.

**EHU ZABALIK ASTEBURUETAN**

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako EHUko campusak zabaldu egingo dituzte asteburuetan, ikasleek ikasteko lekua izan dezaten. Azterketak amaitu bitartean, astebururo egongo dira zabalik hainbat ikasgela.

**GUREGAIK/ ORFEOI GAZTEA**

**Orfeoi Gazteak sasoi berria hasi du erreperitorio dinamikoagoarekin eta Gabero izen berriarekin**

MONIKA BELASTEGI

**Orfeoi Gaztea sasoi berri bati ekiteko urratsak ematen ari da. Aurrerantzean, Gabero deituko da, eta izenarekin batera kantarien adin tartea eta erreperitorioa ere aldatu dute. Ohiko eskemak dute helburu.**

Gabero (Gazte Bergaratar Orfeoia) izenarekin ezagutuko dugu aurrerantzean Orfeoi Gaztea zena. Aldi berri bati ekin zioten urtarrilean; hainbat aldaketa ekarri dituen aldi berri bati. Batetik, taldeko abeslarien adin tartea luzatu egin dute; orain arte adin muga 18 urtekoa zen; Gaberok, berriz, 15-16 urtetik hasi eta 23-24ra arteko hemeretzi gazte ditu

taldean; nahiz eta David Azurtza zuzendariak esan digunez, gazteagoendako ateak itxita ez dauden.

Adin muga zabaltzeko helburua erreperitorioa izan da, batez ere. Azurtzaren esanetan, erreperitorio zabalagoa egingo dute aurrerantzean, "gauza fresko eta dinamikoak jantzia; ohiko eskemak apurto nahi ditugu".

**GABERO, LAUSARDIREN BAITAN**

Berritasun guztien artean, Lausardi Koru Sinfonikoaren parte izatera ere pasatu da Gabero. Horrela, Lausardiren hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izango dute gaztetxoek. Lehen emanaldia bihar egingo dute, 20:00etan, Mariaren Lagundian.



Entseatzeko modua ere aldatu egin dute, gazteendako arinagoa izan dadin.

**LOTSABARIK/ Jon Santos**

**"Arkeologiaz eta historiaz asko dakit"**

AINTZANE IRIZAR

**Pesimista samarra dela sumatu dugu, baina era berean, alaia. Arkeologo izatea da Jonen ametsa, txiki-txikitatik. Ordenagailuak ere asko gustatzen zaizkio. Ikasketetan, baina, justu samar ei dabil.**

- Txikitan, zer izan nahi zenuen?  
Arkeologo; bueno, orain ere horixe izan nahi dut: arkeologo. Osaba arkeologoa zen eta haren-gandik hartu nuen zaletasuna.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?  
Uf! Oso gaizki, borroso ikusten dut etorkizuna; ikasketekin

oso gaizki nabil... Espero dut lanean jardutea ordurako, lantegiren baten-edo.

- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?  
Ikasteko eta ikasteko.
- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.  
Denetik probatu dut, baina beti harrapatzen naute; ez dago modurik.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?  
Ordenagailuei; izugarri gustatzen zaizkit. Lagunekin egotea ere asko gustatzen zait.
- Zure bertute bat?  
Arkeologiaz eta historiaz asko dakidala. Bestetik, irekia naiz, batzuetan, lotsabakoa ere bai.

- Eta hutsune bat?  
Frakasatu hutsa naizela; gauza txar guztiak parean tokatzen zaizkit beti.
- Zerk amorratzen zaitu?  
Jendeak ni zirikatzeak.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?  
Burua.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?  
Izaerari ematen diot garrantzia; fisikoari, berriz, bat ere ez.
- Zer egiten duzu seduzitzeko?  
Begiradarekin ahalegintzen naiz, baina badirudi ez dudala seduzitzen.
- Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?  
Ez daukat horrelakorik.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: DBHko bigarren maila • ZALETASUNAK: Arkeologia • LIBURU BAT: 'El señor de los anillos', Tolkien-ena  
FILM BAT: 'Jurassic Park' • MUSIKA TALDEA: Rammstein • KIROL TALDEA: Portland San Antonio

**TIRABIRAKA/ Oihan Vega**



## ZAHARREN ETXETIK



Victoriano Gallastegi alkatea eta San Joxepeko zuzendaritzako kideak egueneko batzarrean.



Aretoa jendez gainezka egon zen. 120 bazkide inguru batu ziren batzarrean.

# San Joxepe erretiratuen elkarteak Batzar Orokorra egin zuen joan den eguenean

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak Batzar Orokorra egin zuen joan den eguenean, hilak 30, Boni Laskuraineko egoitzan. Aretoa jendez gainezka zegoela, urteko jardueren eta etorkizunerako asmoen berri eman zuen zuzendaritzak. Besteak beste, 1973. urtetik hona herriko erretiratuen egoitzaren historia jasoko duen liburua argitaratzeko asmoa daukate.

Besteak beste, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Ramon Jauregi Diputazioko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria eta San Joxepeko zuzendaritzako kideak (Tomasa Zabaleta presidentea tartean) egon ziren egueneko batzarrean. Batzarrak ordu bi inguru iraun zuen eta, guztira, elkarteko 120 bazkide inguru

batu ziren. Jakinean bazkide asko izango zirela, San Joxepeko tabernan egin zuten batzarra.

Gai zerrendari dagokionez, Mariasun Plazaolak aurreko akta irakurri zuen, eta aho batez onartu zuten. Bestalde, LKS Aholkularitzarekin batera elkartearen funtzionamendua hobetzeko lantzen ari diren plangintza ere aztergai izan zuten. Elkarteak etorkizunerako gestio modeloaren diseinua eta ezartzea lantzen dihardu. San Joxepeko zuzendaritzak 14 laguneko taldea osatu du aurten gestio modeloaren nondik norakoak zehazteko, hemendik bost urtera herrian izango diren erretiratuen beharrei erantzuteko prest egoteko helburuarekin. 2007. urtean, 1.800-2.000 lagun egongo lirarteke autonomo aktiboaren kolektiboaren barruan.

Gaur egun, 1.600 bazkide ditu San Joxepe elkarteak. Bazkideen kopuruak nabarmen egin du gora

azken urteotan. Iaz 100 izan ziren bazkide berriak. Helburuen artean etengabeko hobekuntza eta gizartearen presente egotea aipatu ziren batzarrean. Herriko erretiratuen egoitzaren gaineko liburua argitaratzeko proiektua esku artean daukatela adierazi zuten baita. Hain zuzen ere, 1972. urte-tik honako ibilbidea jasotzea da asmoa, Alkartu Naik lehengo "Aitonak" elkarte sortu zuenetik gaur egun arte. Proiektu hori aurrera ateratzeko, herriko erakundeekin eta enpresekin harre-

manetan hasi dira San Joxepe elkartekoak.

Eta era berean, batzarrean aditzera eman zuten, Adineko Pertsonen Kontseilua abian jarri nahi dute Debagoienean, Gipuzkoa mailan martxan dagoenaren antzera.

## ALDAKETAK ZUZENDARITZAN

Zuzendaritza batzordean ere hainbat aldaketa egitea onartu zuten batzarrean. Hain zuzen ere, zuzendaritzako kideen %50 berritu dute, estatutueta jasoz denaren arabera. Horrela, Jose Arenazak, Iñaki Egurenak, Felix Garaik, Elisa Garmendiak eta Joxepi Larrañagak ez dute zuzendaritzan jarraituko eta euren ordez, Natividad Albisua, Juan Kruz Azkarate, Maria Luisa Bastera eta Jose Miguel Ortigosa sartuko dira zuzendaritzan. Bestalde, 1997tik urteroko kuotak ez du igoyerarik izan eta batzarrean 2,40

euroko (400 pezeta) igoera onartu zuten bertaratuek.

## MENDIZALEEN TOPAKETA HILAREN 13AN IRUNEN

Bestalde, Irungo Luis Mariano erretiratuen egoitzak antolatuta, Mendizaleen Topaketa egingo dute Irungo San Martzial mendian datorren eguenean, ekainaren 13an. Bergararik irteera autobus geltokitik egingo dute, 07:30ean. Zumarragaraino autobusez joango dira eta han Irumerako tren hartuko dute. Hainbat herritako erretiratuak Irunen batu eta San Martzialera igoko dira. Eliza bisitatu ondoren, hamaiketako izango dute, eta gero, Irungo Arano jatetxean bazkalduko dute. Bidaiaren prezioa (bazkaria barne) 12 euro izango da; izenematea Euskadiko Kutxan egin daiteke. Interesatuok 943 76 30 09 telefonora jo dezakete argibide eske.

*Erretiratuen  
egoitzaren  
ibilbidearen gaineko  
liburua argitaratu  
nahi dute*

## MIZPILDI



## OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09



## IRURAK MARGOAK


DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Bi kaleok auzune berean daude. Zein izen dute?

**GALDEDEBALDE**

**1.**

Nor da Bergarako Musika Eskolako Haurren Abesbatzako zuzendaria?

- A/ Maria Jesus Ugalde.
- B/ Cristina Larrañaga.
- C/ David Azurtza.

**2.**


Begarako Orfeoi Gazteak izen berria izango du aurrerantzean. Zein?

- A/ Gabero.
- B/ Lausardi.
- C/ Urretxindorrak.

**3.**

Zein izango da Bittor Agirrebarrena entrena-tzailearen ordezkoa nesken futbol taldean?

- A/ Juanina Garai.
- B/ Igor Larrañaga.
- C/ Fernando Oregi.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JON LAZKANO**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Jon!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Gorostiza** / Galde debalde: **1-A, 2-B, 3-C**.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Suchard Milka txokolatea**

125 gr.

**0,68 €**

113 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTIBOIA

**BERGARAKO ZUHAITZAK**

**Negundo astigarra**

*Acer negundo*

MAITANE ARIZABALETA

**H**amabost bat metro har ditzake-en tamaina ertaineko zuhaitza, nahiz eta normalean 10 metrotik ez den pasatzen. Basati bihur daitekeen zuhaitz hori erraz bereizten da beste astigarretatik: hostoak pinatikonposatuak dira eta 3-5 foliolo dauzka, obatu akuminatuak.

Negundoa martxo eta apirila bitartean loratzen da, loreak hostoak baino lehenago irteten dira. Loreak txikiak eta zuri-berdeak dira eta lore arrak eta emeak oin ezberdinetan hedatzen dira. Fruitua, ordea, uda bukaeran edo udazkenean heltzen da. Fruitua akenio luzanga eta hegoekin osatua dagoen disamara da.

Lurzoru mota ia guztiak jasan arren, ez da gehiegi ureztatu behar, horrek akaroek eta *Phytophthora* onddoak eraso egiteko arriskuan jar lezake-eta.

Gure kale, parke eta lorategietan oso hedatua dago, batik bat, alienazio zuhaitz gisa. Bergaran Arrizuri kalean aurki genezake. Horregati, lorezaintzan hainbat barietate atera dira, alde batetik, hosto horidunak (*aureum*), eta, bestetik, ertz zuridunak (*variegatum*).

*“Martxo eta apirila bitartean loratzen da eta loreak hostoak baino lehen irteten dira”*

**DEBA GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Teleforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**KONDE PANADEROKUA**



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**ETXAGI JATETXEA**


AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35  
BERGARA



BERGARA  
**Jesus Manso**  
Ekainaren 8an 70 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Laura Frias**  
Maiatzaren 31n 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Itziar eta Nerea.



BERGARA  
**Oier Aperribai**  
Ekainaren 3an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Ane Zangitu**  
Ekainaren 1ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak ata Jon.



BERGARA  
**Xabier Uribesalgo**  
Ekainaren 7an 24 urte.  
Zorionak! Haritz, Ainhoa,  
Paulo, Nerea eta Mikel.



BERGARA  
**Maddi Goenaga**  
Ekainaren 11n urtebete.  
Urte askotarako!  
Itxaso eta etxekoak.



BERGARA  
**Eider Etxaniz**  
Ekainaren 8an urtebete.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



BERGARA  
**Yaiza Plazas**  
Ekainaren 5ean 10 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Saray.



BERGARA  
**Oihana Aizelai**  
Ekainaren 8an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta Amaia.



BERGARA  
**Anddoni Lasa**  
Ekainaren 11n 8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Julen Gorosabel**  
Ekainaren 11n 5 urte.  
Urte askotarako! Aitatxo,  
amatxo eta Maider.

**Adi!** Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxungo

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARA agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61  
BERGARA

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

**IKUSBI**

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5  
BERGARA  
943 76 53 09

*Usoa Pub*



943 76 38 57  
Irala 1. Bergara

**GURIA  
Taberna**

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

**E  
GUREN  
P  
INTURAK**

Pintaze lanak orokorrean

Irala kalea z/g  
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

**GOIERRI  
AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA





Ile apaindegira baino lehenago heltzen gara.  
Ibarreko BERRIAK gertu-gertutik egunero.

### BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera  
14:00etan eta 20:00etan
- Errepikapena egunero, 15:30ean eta 21:30ean
- Aurkezleak: **Gorka Etxabe** eta **Maidier Osa**



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 7a / 116. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Laster izango dugu Urkuluko ura herrian

AINZANE IRIZAR

Badira hiru bat aste Urkulutik Antzuolara ura ekartzeko lanekin hasi zirela. Horretan ari den enpresak bederlatzi hilabeteko kontratua dauka; hortaz, pentsa dezakegu hilabete batzuk barru Urkuluko ura edan ahal izango dugula Antzuolan.

Gipuzkoako Ur Partzuergoak 1994ko proiektua zuen esku artean Urkulutik Antzuolara ura ekartzeko. Baina proiektu hura zaharkituta zegoela eta, hainbat aldaketa egin zizkieten. Martxoan bukatu zuten behin betiko proiektua eta maiatzean hasi ziren Bergararik Antzuolara bitartean hodiak sartzten.

Udaleko arduradunek adierazi dutenez, oso martxa onean doaz lanak, eta hilabete batzuk barru Urkuluko ura edan ahal izango dugu.

Herriko hainbat puntutan hasi dira dagoeneko lurra zultzen eta hodiak sartzten. Galartza auzoan eta Aitzagako biltegiaren inguruan, esate baterako, nahiko aurreratuta doaz lanak.

Bergararainoko azpiegitura eginda dago; hortaz, Bergararik Antzuolara bitartekoa egingo dute orain. Herrian Bide Zaharra bezala ezagutzen den bidetik ari dira hodiak pasatzen. Gero, *Aristi* bi baserrien tartetik pasatuko da sarea; handik, erreka eskuineko aldetik, Lizarragako hiri-bideraino eta handik Aitzagara.



Aitzagako depositoaren inguruan hodiak sartzten ari dira.

Orain arte moduan, Aitzagako ur-biltegitik banatuko dute ura herri osora.

### ITURBURUETAKO URA

Gaur egun, herriko hainbat iturburutako ura hartzen dute antzuolarrek etxeetan. Urkuluko ura kontsumitzen hasten garenean, baina, iturburutako ura aprobetxatzen jarraitzeko asmoa du Udalak: ureztatzeko, industria-rako edo igerilekuak egiten dituzten erabil daiteke ur hori,

esate baterako. Dena dela, aukera guztiak ondo aztertzen ari dira oraindik.

### ARETXABALETAKO URTEGIA

Duela hogeita zazpi urte eraiki zuten Urkuluko urtegia, 1975. urtean, hain justu ere. Hamar milioi metro kubikoko edukiera dauka eta Eskoriatzara, Aretxabaletera, Arrasatera, Bergarara, Elgetara, Oñatira eta Soralezera banatzen dute hango ura. Laster, baita gurera ere.

## ETXEBIZITZAK

### Hamasei etxebizitza egingo dituzte

AINZANE IRIZAR

Antzuolako Udal Etxegintzarako bazkide berria aukeratzekoak ziren egueneko osoko bilkuran. Horren helburua da Udalak eta enpresa eraikitzaile horrek osatutako elkarteak hamasei etxebizitza eraikitzea.

Udalak bazkidea aukeratzeko deialdia egin zuenetik hiru enpresa aurkeztu ziren: Latxartegi, Egaralur eta Mitxaia. Behin elkarte osatuta, hogeitahi hilabete-

an eraikiko dute etxebizitza multzoa. Lehen eraikitako bi etxebizitza multzoen atzeko aldean egingo dute, eta aurreko bien berdina izango da, bai itxurari eta bai tamainari dagokionez ere.

### ORAINDIK EZ DAGO ZERRENDARIK

Horietako etxebizitza bat erosi nahi duenak oraindik ez dauka izena emateko aukerarik. Baldintza plegua onartzen dutenean zabalduko dute zerrenda osatzeko epea.

## TXIRRINDULARITZA

### Euskal Bizikletako etaparik ez herrian

AINZANE IRIZAR

Antzuolako txirrinduzale batzuek 2004ko Euskal Bizikletaren etapa bat Antzuolan bukatzeko eta hurrengo etapa ere herrian has-teko aukera aztertu zuten. Lasterketako antolatzaileek begi onez ikusi zuten proposamena.

Aurrekontua 36.060 euro pezetakoa zela zehaztu, eta horren %60 Udalarari eskatu zioten. Abenduan egin zuten eskaera, eta txirrinduzaleek esan digutenaren arabera, joan den egubakoitzean jaso

zuten Udalaren ezezko erantzuna, idatziz. Gainera, ezezko horren arrazoi bakar bat ere ez ei die eman. Udalaren jarrera "eskasa" eta prozesua luzeegia izan dela salatu dute.

Udalak, berriz, zera adierazi dio KONTUOLARI: egun bakar baten gastatzeko "gehitxo" iruditzen zaiela 21.636 euro, kontuan hartuta, gainera, ekintza profesional baterako dela; Udalak kirola bultzatzen jarraituko ei du, baina oinarritzko kirolari lehenasuna emanez.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89

ANTZUOLA

Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Billegia: 943 78 70 40

AITZ-GARBI



Pintxoak eta  
kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

ELKARRIZKETA

IMANOL PILDAIN/TRIATLETA

*“Lanzarotekoa izan da egin dudan lehendabiziko Iron Man lasterketa, baita lehen triatloi proba ere”*

**M**aiatzaren 25ean jokatutako Iron Man lasterketa Imanolek: 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratoia 12 ordu eta 49 minutuan egin zuen. Debagoieneko Antxintxika taldeko triatleta da Imanol.

**Zer moduz Lanzaroten?**


Ondo, oso ondo; oso sentsazio politak bizi izan nituen lasterketan; bestetik, Esteban Lazkano bergararrarekin joan nintzen eta harekin ere oso ondo konpondu nintzen. Oso gustura geratu nintzen egindako lanarekin.

**Lasterketa gogorra, ezta?**

Bai, haizeagatik, batez ere; Lanzaroten haize bortitza ibiltzen da. Bizikletako proba ere oso gogorra iruditu zitzaidan. Baina, joan baino lehen ere jakina da Iron Man probak gogorrak direla.

**Zein zen zure helburua?**

Lasterketa bukatzea; maratoian, esaterako, hiru orduak jais-



*“Zenbat eta kilometro gehiago, orduan eta hobeto edukitzen dut gorputza”*

tea da nire helburua. Baina Iron Man proba horretan nire helburua zen bukatzea, sentsazio on batekin bukatzea, eta lortu nuen. **Iron Man proba bat egiten duzun lehen aldian izan da?**

Bai; bai Iron Man proba bat egiten dudana, baita triatloi proba baten parte hartzen dudana ere. Triatleta batekin baino gehiagok esan dit zoratuta nagoela. **Dena dela, normala ere bada jendeak pentsatzea zoratuta zaudetela; ez zaizu iruditzen?**

Hori esan didate egiten dudana lehen triatloi proba Iron Man bat izan delako, eta, gainera, Lanza-

rotzekoa. Niretako Iron Man proba erronka zen; gaztetxotatik izan dut Iron Man bat egiteko ametsa, 17 bat urte neuzkanetik-edo. **Zein modalitatetan ibiltzen zara ondoen?**

Uste nuen korrika ibiliko nintzela ondoen, baina bizikletaz ere nahiko ondo ari naiz moldatzen, asko entrenatu naiz eta, kilometro mordera egin dut. Nik daukadan onena erresistentzia da, abiadurarik ez daukat, baina oso erresistentea naiz. Zenbat eta kilometro gehiago egin, gorputza orduan eta hobeto edukitzen dut. Kilometro gutxiko probak askoz gogorragoak egiten zaizkit.

**Entrenamenduak ere gogorrak izango dira, ezta?**

Bai; beharbada, probak baino gogorragoak. Horrekin lotuta, esan behar da nire familiak asko lagundu didala, eta hori eskertzekoa da. Hurrengo astean, 15ean, Zarauzko Triatloia egingo dut, eta, horren ostean, emazteari eta alabei denbora luzeagoa dedikatzeko asmoa daukat.

**ATREBENTZIAEZPADA/ Erosketak Antzuolan bertan egiten dituzu ala kanpuan?**



**M. KARMEN ARANGUREN**  
51 urte



**MARI KARMEN LARRAÑAGA**  
50 urte



**CECILIO GONZÁLEZ**  
60 urte



**MARIPI MANZIDOR**  
48 urte



**PEDRO MARTÍNEZ**  
43 urte

Eguneroko erosketak, normalian, Antzuolan bertan egiten ditut; erropak eta holakuak, berriz, kanpuan: Oñatin, Bergaran edo Gasteizen.

Ez daukat kotxerik, eta Antzuolan egin bihar izaten ditut erosketak. Egunerokoak ez diran erosketak, batzutan, Antzuolan eta bestela Bergaran.

Erosketa gehixenak, egunerokoak, herrixan bertan egiten ditugu, baiña erropak erostera kanpora juten gara; aukera gehixago dago hiriburuetan.

Normalian, Antzuolan. Batzuetan, asteburuetan, Arrasateko supermerkatu be juten naiz. Erropia erostera, berriz, hiribururen batera.

Supermerkatu haundixetan gehixenak; baiña okela, arraiña eta holakuak, herriko denda txikixetan. Erropia, berriz, kanpuan.

LABUR

**Erretiratuek irteera egingo dute Urkiolara**

Ekainaren 13an, eguenean, egun osoko irteera antolatu du Antzuolako erretiratuen elkarteak. Goizean goiz irten eta Urkiolara abiatuko dira. Goiza Urkiolan pasatu eta gero, Garaira joango dira bazkalazera. Bazkalostean ere ez dute aspertzeko astirik izango, dantzaldia izango dute eta jatetxean bertan.

Irteera horretara joan nahi dutenek erretiratuen elkartean eman beharko dute ize-na ekainaren 10ean edo 11n, 18:00etatik 19:00etara.

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatze eta barnizatuak  
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

*Juan Cruz*  
ARGAZKIAK  
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko ekainaren 7a / 101. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Adin guztietako herritarrak batu ziren Espaloian GOIBEKOKALEko jaian

OXEL EROSTARBE

GOIBEKOKALEko 100. zenbakia ospatzeko jende ugari hurreratu zen zapatuan Espaloira. Zazpi urte hauetan ateratako erretratuekin osatutako erakusketa ikustera jende ugari gerturatu zen eta gauean, adin guztietako herritarrak batu ziren erromerian.


Badihardugu eta Goibeko elkarrekin antolatuta eta Udaleko Kultura batzordeak lagunduta, Euskalkiaren Eguna izan zen aurreko zapatuan Elgetan. Goizean, euskalkia landu zuten liburute-gira hurreratu zirenek. Bertan, euskalkiaren erabilera egokiaz eta komunikabideetan izan behar duen lekuaz jardun zuten.

GOIBEKOKALEko erretratuekin osatutako erakusketa ikustera ere herritar ugari gerturatu ziren Espaloira. Izan ere, zapatua izan zen zazpi urte hauetan ateratako bostehun erretratu baino gehiagorekin osatutako erakusketa ikusteko egun bakarra.

**ADIN GUZTIETAKO HERRITARRAK DANTZAN**  
Umeek arratsaldean izan zuten euren ekitaldia, eurendako, txo-



Giro paregabea izan zen GOIBEKOKALEko 100 zenbakiak ospatzeko izan zen herri afarian.



GOIBEKOKALEko erakusketak arrakasta handia izan zuen.

txongiloak izan ziren-eta.

Herri afarian giro aparta izan zen eta erromerian, zer esanik ez. Aspaldiko partez, ume, gazte, nagusi eta erretiratu, guztiek

batera hartu zuten parte Tapia eta Leturiaren erromerian. Lotsa guztiak gainera kendu eta goizaldera arte jardun zuten dantzan guztiek. Goibekotik adierazi digute-

nez, pozgarria izan da adin guztietako herritarrak Espaloian batu izana. Goibekoren ustez, Kafe Antzokiaren beharra eta horrek sortuko lukeen mugi-

mendua argi geratu zen. Herritarrak proiektuaren alde azaldu direla uste du Goibekok, eta hori aurrera eramatea herriaren onerako izango litzatekeela.

### IRAKURLIARENTXOKUA

#### ESKERRIK ASKO

Eskerrik asko esaten hasi bihar dogu gaurkoan; batzutan hori be ein biharrekua izaten da eta.

Eskerrik asko zorionak emon doskuzuen elgetar danoi; eskerrik asko Udaleko langille danei, erraztasunak besterik emon ez doskuelako. Baita Patxiri be, bere nerbixuekin Udalkizuna meiorau besterik egin ez zabalako. Eskerrik asko lagunei gauza danak ondo urtetzeko hainbeste lan egin dittuelako. Eskerrik asko Mondrautik etorritako kantate finei, espezial letrak asmatzen hain ondo hasi dan praktikante musikarixari. Eskerrik asko dantzan gustora asko egingo eban azkoittiarrari eta txistua gustora asko joko eban elgetarrari, arazo teknikuak zirala eta txisturik jo ez eta dantza egin ez arren, euren gogua estimatzen dugulako. Eta akabatzeke eskerrik asko izendatu ezin leizken beste danoi be. Holakuetan estimatzen da benetan elgetarra izatia.

ESTER TOTORIKA ETA JABIER ARANTZETA

### LABUR

#### Hilaren 13an, arau subsidiario berriak aurkeztuko dituzte

Datorren egunean, ekainaren 13an, arau subsidiario berriak aurkeztuko dituzte Espaloia aretoan. Arau berrietan zehazten diren aldaketak azaltzeko, arauak egin dituzten Toledo Taldeko teknikariak izango dira.

Gaur egunean indarrean dauden arauak 1982an onartu zituzten, eta aldatzeko ordua iritsi dela erabaki du Udalak.

Gauzak horrela, elgetarrok hilabete izango dugu arauetan kontuan hartu beharko litzuketen proposamenak eta kexak azaltzeko.

#### Ikasturte amaierako jaia egingo dute ekainaren 14an

Eskolako neska-mutikoei aurtengo ikasturteari amaiera emango dion jaia egingo dute ekainaren 14an.

Adin guztietako umeek hartuko dute parte jai horretan. Gela bakoitzak ekintza bat egingo du. Abestiak, *playback*-ak, antzerkiak... Denetarik egingo da ikusgai.

Jaia arratsaldeko ordu bi eta erdietan hasiko da, Espaloian. Eskolako neska-mutikoei herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ikasturte amaierako jaia ikustera.

#### Jon Abril en epaiketara joateko autobusa egingo da

Ekainaren 11n, goizeko hamar eta erdietan, Jon Abril en epaiketara joateko autobusa egingo da Madrillgo Auzitegi Nazionalan. Hara joateko antolatu duten autobusa Gasteizen hartuko dute Elgetako lagunek. Norbaitek joan nahi izanez gero, Haizean eman behar du izena domeka aurretik.

Jon Abril ezaguna da Elgetan; sarritan etorri izan da gure herrira. Aurreko asteburuan ere gurekin izan zen GOIBEKOKALEren 100 zenbakiak ospatzeko jaian. Lerro hauetatik, elkartzetara adierazten diogu.

KIROLA

# Jone Muxika elgetarra Gipuzkoako txapeldun

O.E.

Maiatzaren 26an, Mendiko Bizikletako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Trintxerpen. Oso lasterketa lehiatsua izan zen eta helmugara heltzen lehena Jone Muxika izan zen. Denboraldiko lasterketa guztiak hiru aurrenekoen artean bukatu ditu elgetarrak.

Jone Muxikak denboraldi bikaina egiten dihardu. Neguan emaitza ezin hobekak lortu zituen ziklo-krosean, eta mendi bizikletan ere ez da atzean geratu elgetarra.

Elorrioko, Obanosko eta Amurrioko lasterketetan hirugarren amaitu du Jonek. Izkuenen bigarren eta Trintxerpen, Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko lasterketan, lehenengo.

Emaitza bikain horiek direla eta, Euskadiko Openeko bigarren postuan dugu Alfa Deco taldeko

txirrindularia. Guztira, 22 puntu ditu elgetarrak. Jonek GOIBEKOKALeri adierazi dionez, oso gustura dago egiten diharduen denboraldiarekin; edozelan ere, hobetzeko nahia agertu du.

Ziklo-krosean gertatu zen moduan, litekeena da Joneri Espainiako Txapelketan parte hartzeko deitzea.

Domekan, Muskizko lasterketan izango da. 7,5 kilometroko ibilbidea egin beharko du.

**XABIER UBERAK, GALDU**

Denak ez dira berri onak izan Elgetako kirolariendako. Xabier Uberak galdu egin zuen domekan Baezen aurka. Ondorioz, Lau t'erdiko Txapelketatik kanpo geratu da Elgetako pilotaria.

Barikuan, Urretxun, Arantzeta eta Ajuriak 22-10 irabazi zuten Errasti anaian aurka. Ondorioz, final-laurdenetarako sailkatu dira txapelketa horretan.



Mendiko bizikletan ere denboraldi bikaina egiten dihardu Jone Muxikak.

ARETO FUTBOLA

**PARTIDUAK**

- 15:00: Bar El Arco-Arineketan.  
La Kokotxa
- 16:00: La Kokotxa-Spias  
Arineketan
- 17:00: Txapela-Vicios  
Spias
- 18:00: MTS-Komando Piperrak.  
Vicios

**EMAITZAK**

Chievo-Spias .....	10-0
Txapela-MTS .....	8-0
La Kokotxa-Komando Piperrak. ....	6-8
Vicios-Bar El Arco. ....	3-1

**SAILKAPENA**

Taldea	P	J
1. Arineketan .....	9	5
2. Txapela .....	8	5
3. Bar El Arco .....	8	6
4. Vicios .....	7	5
5. Chievo .....	6	6
6. Komando Piperrak. ....	4	5
7. Spias .....	4	5
8. MTS .....	2	5
9. La Kokotxa .....	0	6

JAIK

# Ekaiñaren 15ian aurkeztuko dittue aurtengo jaixak

O.E.

Ferixa Nagusiko jaixak ekaiñaren 15ian aurkeztuko dittu Jai batzordiak. Horretarako, aurtenguan, *Hau Paraderoa!* antzez-lana ekarriko dabe. Espaloia aretuan izango da aurkezpena, gabeko hamarretatik aurrera.

Elena Iruretak, Elixabete Elizondok, Aitzpea Goenagak eta Loly Astorekak hartzen dabe parte *Hau Paraderoa!* antzezlanean. Antzezlana horretan, zenbait lekutan lau emakumek izandako egoerak kontatzen dittue.

Iaz moduan, jaixen aurkezpeneko ekitaldira sartzeko gonbidapena biharko da. Horrek gonbidapenok udaletxian eskatu bihar dira, Enrike Gorrotxategi Kultura teknikarixari. Danera, 250 lagun ingurundako egongo dira gonbidapenak. Hori dala eta,

antzerkixa ikusteko lekua eukitzeko, lehenbailehen gonbidapena eskatzia komeni dala esan daskue Jai batzordetik. Gonbidapenak jasotzeko azken eguna ekaiñaren 10a izango da.

**HERRI AFARIRAKO TXARTELAK**

Haizea eta Patxi tabernetan dare salgai jaixetako eguen gabian plazan izaten dan herri afarirako txartelak. Aurtenguan, hau izango da eguen gabeko herri afariko menua: entsalada mistua, pipar betiak, oillasko izter betia, pastela, kafia eta patxarana.

Afariko txartelen prezioa 7,20 euro izango da umiendako; langabiendako, ikasliendako eta jubilaueendako, 8,50 euro; nagusixendako, 10,50 euro. Txartelak hartzeko azken eguna ekaiñaren 20xa izango da. Afalostian, Dantza Txapelketia izango da plazan.



Elena Iruretaren, Elixabete Elizondoren, Aitzpea Goenagaren eta Loly Astorekaren antzezlana ikusiko dogu jaixen aurkezpenian.

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi  
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**20690 ELGETA**

Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19

**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

**TAPEM S.A.**

Trokelak eta estanpazioa  
**TROKEL PROGRESIBOETAN  
ESPEZIALDUAK**

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31  
Faxa: 943 76 82 43

## ERRETRATUZAHARRA

Erretiratuak  
Artxandan,  
1975ean

**A**ntzuolako erretiratuak ez dira, ez, geldi egotekoak. Ez orain, eta ezta lehen ere. Oraingoan, erretiratuen irteera bateko argazkia dakarkizuegu.

Urtean hiruzpalau irteera egiten dituzte herriko erretiratuek, eta badirudi ez dela gaur egungo ohitura. Ohitura horri eutsi egiten dio Antzuolako erretiratuen elkarteak, eta urtero hainbat toki bisitatzera joaten dira, autobusa bete-bete eginda. Duela gutxi, esate baterako, Nafarroa aldean ibili ziren, hango hainbat herri eta upelategi bisitatzeko. Eta datorren astean bertan ere beste irteera bat egingo dute, Bizkai aldera joango dira egun-pasa: Urkiolan igaroko dute goiza eta Garain bazkalduko dute.

Duela hogeita zazpi urteko irteera batekoa da argazki hau, 1975. urtekoa, hain zuzen ere; Antzuolako erretiratuen elkarteak antolatuta, hainbat herritar joan zen Artxanda eta inguruak bisitatzera.

Erretiratuen elkarteko kide Jesus Agirrek laga digu erretratu zaharra.



Hona hemen argazkian azaltzen diren lagune n izenak, ezkerretik eskumara: Juana Gabilondo, Nicolasa Igartza, Vicente Telleria, Modesta Gabilondo eta Francisca Larrañaga.

Argazkia: Jesus Agirre


## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Maristak joan  
ziren, baina  
eraikina ez

**A**ldameneko argazkiotan azaltzen den ingurua izugarri aldatu da. Maristen eraikin nagusia edo handienak bere lekuan jarraitzen du oraindik; gizarte etxea egitekoa da hantxe Udala. Eraikin nagusi horretan kapera, ikasgelak eta logelak zeuden. Ezkerrean Valentin de Berriotxo Eskola ikusten da eta atzean, erdialdean, Lapatza-Etxeberriko etxea.



1960 Lapatza-Etxeberriko etxea eta maristen eraikin nagusia dira gaur egun zutik jarraitzen duten bakarrak.



2002 1977an eraiki zituzten Eguzki Auzoko etxebizitzak multzoak; horrek asko aldatu zuen argazkian ikusten den ingurunea.

**Z**umelaga  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz  
margoak

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara

**U**  
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

**MUJIK**A FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**Euskararik  
freskoena  
lortuko duzu**



## 2002 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

### ESKAINZA

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE, EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK.

### ERRITMOAK

Egunean 4 edo 5 ordu, goizez.  
16 urtetik gorakoentzat..

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30.  
Arratsaldez: 14:30-18:30.

### IKASTAROEN IRAUPENA

Ekainaren 25etik uztailaren 24ra.

### MATRIKULATZEKO EPEA

Ekainaren 10etik 21era.

### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

UDAL  
EUSKALTEGIAK




[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

# ARREGI AROZTEGIA



Sukaldeak  
Arozlan mekanikoak  
Ateak  
Horma-armairuak

Tarimak eta Parketak  
Neoprenozko juntadun  
egurrezko leihoak  
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitante 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

